

**MITUSU**

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA  
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y JÓVENES

**B**

**Bilbao**



# **BILBON ESKOLATIK ANTZERKIRA 2022-2023**

**BILBOKO HAURRENTZAKO  
PROGRAMAZIO ESZENIKOA**

**PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA  
NIÑOS Y NIÑAS DE BILBAO**

# "NIRE BELDURRIK MAITEENAK"

## GIDA PEDAGOGIKOA

### OHARRA:

Nahi duten ikastetxe guztiek "Nire beldurrik maiteenak" antzezanaren inguruan egindako Unitate Didaktikoa eska dezakete, eta ikasgelako curriculumaren garapenera egokitu.

[angel@produccionesmaestras.eu](mailto:angel@produccionesmaestras.eu) helbidean.

## EDUKIEN AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
2. TALDEA
3. NIRE BELDURRIK MAITEENAK
  - 3.1 TESTUA
  - 3.2 PERTSONAIK
  - 3.3 NOLA DEFINI DEZAKEGU "NIRE BELDURRIK MAITEENAK"?
  - 3.4 ESZENARATZEA
4. EMANALDIAREN AURREKO JARDUERAK
5. EMANALDIAREN ONDORENGO JARDUERAK
6. TALDE ARTISTIKOA



## 1. AURKEZPENA

Gida honek "Nire beldurrik maiteenak" antzezanari buruz behar adina informazio eskaini nahi du, ikasgelan edo eta familia eremuan barneratu ahal izateko, eta ondorioz haurrek antzerki lana hobeto ulertu eta gozatu dezaten.

Gida entretenigarri eta aberatsa eskaintzea garrantzitsua da, arte dramatikoak eskaintzen dizkien aukerak nabarmentzen dituena. *Antzerkia, musika eta abestiek eskola-adineko garapeneraren jarduera nagusia osatzen dute. Haurrentzako antzezanek*

*sorkuntza, artea eta kultura sustatzen dituzte, haurren nortasuna, konfiantza eta segurtasuna garatzeaz gain.*

Teknologia berriek baldintzatutako mundu batean, haurrak, makina bat aukera (jokoak, telesailak, filmak) eskaintzen dizkieten euskarri elektronikoz inguratuta aurkitzen dira, pixkanaka giza harremanetatik urruntzen dituztenak. Antzerkia, une horretan, milaka urteko komunikazio erritu bezala aurkezten da, non aktore eta publikoaren arteko akordioa partekatzen den, antzezpena komunikazioaren giltzarri eta publikoa komunikazio-ekintzaren ezinbesteko zati bihurtzen dituen fede egintza.

Antzerkia gure bizitzaren parte da, 3D benetakoenera itzultzea da. Arauak errespetatzen, emozioak identifikatzen, egoerak ulertzen, bestearen lekuan jartzen erakusten digu; azken finean, bizitzen erakusten digu.

Gida pedagogiko hau jolas dramatiko, dramatizazio eta antzerkiaren alderdi jostagarri eta sozializatailea azpimarratu nahi duten beste jarduera batzuen errefortzu gisa proposatzen da, adierazpen gaitasunak garatzeko baliabide motibagarri eta dinamizataile gisa edo eta beste eduki multzo batzuk irakatsi eta ikasteko estrategia metodologikoa bezala erabiltzeko eskaintzen duen aukeraz gain.

Haurrak, antzerkiak harremanetarako, ikasteko eta gozatzeko eskaintzen dizkien aukera handiez jabetzea da gure asmoa.

“Nire beldurrik maiteenak” ikuskizunarekin dugun asmoa hau da:

- Haurren beldurren gaia lantzea.
- Helduek haurren kezken berri izatea.
- Antzerkiak eskaintzen dituen aukera ludiko-didaktiko-sozialak erakustea.

## 2. TALDEA



Producciones Maestras antzerki talde nafarrak 2013an hasi zuen bere ibilbidea konpainia bezala, formatu txikiko bi antzezlanekin: ¡A por churros!, Iruñako Gayarre Antzokiko “Sanferminetako” testuen bigarren lehiaketako testu irabazlea, eta “El Talego” Mikroantzerkiko lana, Nafarroan gutxi ezagutzen zen formatua garai hartan.

2014ean “Tres Árboles de Piedra” antzezlan jaiotzen da, erkidegoko mugetatik atera zen ekoizpen handiagoa. Halaber, Gayarre Antzokiak 2015ean Julian Gayarreri

eskainitako omenaldia eskatzen dio taldeari eta “Recordando a Julian Gayarre” lana sortzen du eta 2016ko apirilean “Personajes Inolvidables: Casa de un Avaro con la Importancia de Bernarda” estreinatzen du, antzokiaren beraren neurrira egindako muntaia, antzokiko hainbat espaziotatik egindako ibilbide bat, antzokiko ekoizpenetan bizi izan ziren pertsonaien oroigarri bat, antzerkiaren barruan antzerkiari egindako omenaldia.

2016ean, taldeak “La caída (del hombre en crisis)” helduentzako komedia estreinatzen du, eta harekin erkidego ezberdinetatik bidaiatzen da.

Eta 2017an, publiko gazte eta helduari zuzendutako: “Las Veladas Maestras” izeneko produkzio ildo berri bat estreinatzen dute, kasu honetan MAITASUNARI buruzkoa, “Comedia de amores, amoríos y amantes” lanarekin. Halaber, Raquel Andueza eta La Galaníarekin batera, “Cuando el amor habla, el corazón canta” antzezlan estreinatzen dute, eta 2017ko Erriberriko Antzerki Jaialdiari hasiera ematen diote harekin.

2018an, Ana Caro autore barrokoaren iruditik abiatutako, eta hainbat antzerki jaialditan izandako “Loco Desatino” antzezlanak argia ikusiko du.

2019an familiarteko antzerkiari berriro heltzen diote, “Babian zaude!” 5 urtetik gorako haurrei zuzendutako antzezlanarekin, eta hainbat gai jorratzen dituen, besteak beste, errealitatearen eta familia-ingurunearen aurreko inkonformismoa.

2020an “Mentiras Cotidianas” lana estreinatzen dute, komedia garratz eta bizkorra, non ezer ez den dirudiena, eta gezurra, egia posible bat bezala azaltzen den.

Konpainia bezala, haiek sortutako eta dramaturgia garaikideko testuen aldeko apustua egiten dute, baina egile eta testu desberdinekin lan egiteari uko egin gabe.

“Producciones Maestras” taldearekin Ángel García Moneo eta Ana Maestrojuanek beren bideak eta ibilbide profesional luzeak batzen dituzte, eta elkarren arteko proiektu bati ekiten diote, kultura sortzeko, ekoizteko eta zabaltzeko plataforma bati, eta haiekin partekatzeraz gonbidatu nahi zaituzte, bidean lagun duzun hura, haren parte ere badelako.

## 3. NIRE BELDURRIK MAITEENAK

---

### 3.1 TESTUA

Aurrekoetan bezala, gure testuak sortzearen aldeko apustua egiten jarraitu nahi dugu. Horrek adierazpen hizkuntza berriak etengabe ikertu eta berritzera eramaten gaitu.

Testuan erabiltzen den hizkera zuzena eta argia da. Ezaguterraza zuzenduta dagoen publikoarentzat, baina horrek ez du esan nahi sinple edo arrunta denik. Ulertzea da gure helburua, eta aberasgarria izatea, eta baita hitzei berezko bizitza emateko adinako poesia gordetzea ere.

Azaltzen diren egoerak errealismo hutsetik irudimen xahutzera igarotzen dira, eta ikuslea horren partaide izango da. Idazterako orduan ez dugu oinarri bezala hartu aurrera eraman daitekeen ala ezinezkoa den, antzerkian guztia da posible, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

Dramaturgiak, egoerak, pertsonaiak eta abestiak lotu ditu pixkanaka, ikuskizunari koherentzia dramatikoa emanez.

### 3.2 PERTSONAIAK

Bi pertsonaia ditugu abiapuntu, beldurraren formula aurkitzearekin itsututa dauden bi zientzialari. Simon Irakaslea, adin handiko eta izaera txarreko fisikaria eta Soria Irakaslea, fisikari gazteagoa, izaera beldurtia eta ez oso trebea. Zientzialari horien izenak egileak Fernando Simonen omenez ipini ditu, izan ere haren abizenak **Simón eta Soria** baitira. Pertsonaia hauek ikuspegi errealista batetik abiatzen dira, baina aritzeko modua fikziozkoa da erabat. Bi zientzialarien estilizazio artistikoa da, eta beste buelta bat ematera jolas egiten dugu, haien lana ezagutzeko modukoa izatea, baina ikuspuntu artistiko batekin. Beldurrari buruz hitz egiteko eta gizakiok nola ulergarri eta menderagarri bihurtu nahi dugun azaltzeko bide eraginkorra da pertsonaia hauen erabilera. Muntaiaren azaltzen den beldurren segidaren kontrapuntu bezala aurkezten dira. Testuari koherentzia eta jarraitutasuna emateko dramaturgiako lotura dira.



**Animalia:** Guk, animalia ezberdinetan bihurtzen den izaki arraro bat planteatzen dugu, aldi berean guztia eta ezereza den izaki bat erakusten dugu. “Beldur” honekin egileak bi gai jorratu nahi izan ditu; animaliek ez dutela kalterik egiten orokorrean, eta gogobetetzen ez duen haurtzaro batek dakarren portaera ezkorra. Pertsonaiaren gaiztakeria haurtzaro alderraiaren ondorioa da, eta ez bere animalia izaerarena.

**Iluntasuna:** Gure Iluntasuna, pertsonaia erabat lotsatia da, denak beldurtzen duena. Bera azaltzen den bakoitzean guztiek oihu egitera ez da ohitzen. Oso da sentikorra eta adiskidetsua, barru-barruan berak argia eta alaitasuna izan nahi du. “Brilliss, brilliss” abestiarekin oso argi azaltzen du. Pertsonaia honekin, aurpegi dibertigarri bat jarri nahi izan diogu beldurrik arruntenetariko bati, bere alderdirik interesgarriena erakustez gain.

**Ez-nazazu-ukitu:** Gure “Ez-nazazu-ukitu” pertsonaiak beldur hori irudikatzen du, ez du inork ukitzerik nahi, inor ez dadila hurbildu. Beldur hunkibera, triste eta malenkoniatsua da, maitatua izateko irrikan dagoena, baina fobia, bera baino indartsuagoa da. Irakaslearekin duen topaketak publikoa hausnarketa egitera gonbidatzen du, fobiak gainditzeko, beldurra arrazionalizatzea beharrezkoa dela. Eta zuhertasunaren eta kutsatzeko beldurraren artean oreka aurkitzea beharrezkoa dela.

**Porrot:** Gure Porrot pertsonaia bere izena esatera ere beldur da. Bere fobia muturrera iritsi denez, azaldu ere ez du egin nahi. Irakaslearekin duen topaketak ez saiatzeagatik galtzen ari den guztia erakusten du.

Ikus daitekeenez beldur horiek pertsonaia bihurtzeko, bilaketa eta azterketa lana egin da aurretik. Gure iritziz une hauetan, bai txikiak eta bai handiak, inoiz uste ez genuen bezalako egoerei aurre egin beharrean gaude. Agian umorez eta maitasunez da aurre egiteko modurik onena.

Testu arin, burutsu eta dibertigarrien bitartez, Ana Maestrojuanek beldurrak ez direla hain krudelak erakusten diguten eldarniozko egoerak aurkezten dizkigu.

Erresilientziaz, emozioez, kezkez, nahiez eta frustrazioez hitz egiten dugu, hizkuntza aberasgarri eta zorrotza erabiliz. Ondoren esan ahal izateko, idatzitako testuaren kalitatearen alde apustua egiten jarraitzen dugu.

### 3.3 NOLA DEFINI DEZAKEGU “NIRE BELDURRIK MAITEENAK”?

- \* Diziplina anitzeko proiektu bat bezala.
- \* Kalitatezkoa, dibertigarria eta gaur egungo antzerkia bezala.
- \* Terapeuta baten aholkuarekin sortutako eta beldurrei aurre egiteko dramaturgia jolas bat bezala.
- \* Publikoa identifikatuta senti arazi dezakeen ikuskizun bat bezala.
- \* Sormenezko beste buelta bat bezala.
- \* Hainbat ekipo artistikoren leherketa gisa.

### 3.4 ESZENARATZEA

Aktoreek itxura emango diete pertsonaia hauei guztiei, gorputza landuz batetik eta jantzien elaborazio zainduaren laguntzaz bestetik. Jantziak eta karakterizazioa oinarritzkoak dira proposamen honetan, pertsonaia talde handi hau islatzen eta asmatzen laguntzen digutelako.

Ikuskizun honetarako konposatutako musikak eszenan gertatzen dena ulertzen eta pertsonaien gogo-aldateak sortzen lagunduko du. Musika emozioen eta zentzuaren eramailea da.

Irudien erabilera puntu beretik abiatzen da. Horiekin, egitura abstraktuak eta iradokitzaileak sortu nahi ditugu, pertsonaien arimaren isla izan daitezen, eta ikusleari proposamen irreal bezain ezaguterraz honen barruan barneratzen lagun diezaioten.

Estetikak, elementuek eta proposamenak ez du errealista izan nahi; ikuslearengan, txikia zein handia izan, gaiak, sentsazioak eta emozioak zabaltzeko aukera emango digun atea izan nahi du.

#### 4. EMANALDIAREN AURREKO JARDUERAK

---

- 1) Hurrekin haien beldurren inguruan hitz egin: identifikatu.
- 2) Zer emozio sortzen dizkieten deskribatu.
- 3) Zer imajinatzen dute haien beldurren inguruan?
- 4) Txikienekin hitz egin haien jolasen inguruan.
- 5) Nola jolasten duten, zein erlazio sortzen diren behatu.
- 6) Marraztu eta izena jarri.
- 7) Heldu gisa, izan dezakegun beldurren bat azaldu eta nola gainditu dugun kontatu.
- 8) Beldur hori marraztu eta izena jarri.
- 9) Emanaldian entzungo diren abestiak aditu. Abesti horiek orrialde honetan daude zintzilikaturik: [www.produccionesmaestras.com](http://www.produccionesmaestras.com)

#### 5. EMANALDIAREN ONDORENGO JARDUERAK

---

- 1) Zer iruditu zaien komentatu; gustatu ote zaien, zer gustatu zaien gehiago...
- 2) Antzokira joatean izandako esperientzia konta diezagutela.
- 3) Halako zerbait espero al zuten?
- 4) Beldurren bat ezagutu al dute?
- 5) Abestiak abestu.

[www.produccionesmaestras.com](http://www.produccionesmaestras.com)

## 6. TALDE ARTISTIKOA

---

- Aktoreak: Xabier Artieda eta Iker Bengotxea.
- Dramaturgia eta zuzendaritza: Ana Maestrojuán.
- Teknikariak: Koldo Tainta.
- Figuringilea: Edurne Ibáñez.
- Konpositorea: Gorka Pastor.
- Grafismo: Ainhoa Urrutia y Juantxo Ibarrola.
- Argazkiak: Mikel Legaristi y David Muñiz.
- Sareetan hedatzea: Marta Elena Martín.
- Grabaketa: David y Dani Bernués.
- Produkzioa: Ángel García Moneo.
- Aholkularitza: Natalia Ayesa.

Diruz laguntzen du:



Laguntzaileak:





## BRILLIS EUSKARAZ

Bazterturik eta ahaztuta

Agur sakonean

Malkotan doaz penak

Txaloen esperoan

Lagunek ez naute ikusten

Etsaiek alde egin zuten

Malkotan utzi ninduten

Txaloen esperoan

Izan ere, nik beti amestu izan dudana... Nire ametsa...

Nire ametsa, Kolorea eta argia

brillantina, purpurina, lumak ta dizdira

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Areto haundi bateko eskailera jaitsi

Bitxi ta lumak soinean, Ni bai xarmangarri!

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Perlak, zilarra ta urrea, noski diamanteak

Eta nire zain azpian miresle guztiak

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Nire ametsa, Kolorea eta argia

brillantina, purpurina, lumak ta dizdira

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Telebistan agertu famatuen antzera

Montecarlora bidean luxuzko kotxe batean

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Kapela frutaz josita, koko bat belaunartean

Eta zergatik ez? Saihetsak finak markatzea

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Nire ametsa: Kolorea eta argia

brillantina, purpurina, lumak ta dizdira

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Maitasun iturri izatea nire grazia

Eta behingoagatik ez erortzea desgrazian

*Brillis / Brillis, ni naiz, ni naiz brillis*

Nire ametsa: Kolorea eta argia

## **BELDURRAK**

ZENBAT ITXURA ETA NEURRIKO BELDURRAK

MARRAZO HAUNDIA, BAKTERIA TXIKIA, ARRATOI ZIKINA

HORTZAK ERORTZEARI BELDUR, ETA DESOREKARI

TRISTEZIARI EROMENARI TA BURUA GALTZEARI.

GURE BELDURRA BETI PRESENTE

ETA GU IHESI, ZER INUXENTE

GU IZUTU NAHIEAN, ALDAMENEAN

HONDORATUZ EGUNA DEREPEENTE

HARAT BELDUR UNIBERTSALAK, GUZTIONTZAT IGUALAK  
SUFRIMENDUA , PAZIENTZIA FALTA, AMILDEGIA  
DENONTZAT BELDURGARRIA DA ILUNTASUNA  
ASIAKO LIZTORRAREN ZIZTADA, GAUEN TRUMOI HOTSAREN BURRUNBADA.

GURE BELDURRA BETI PRESENTE  
ETA GU IHESI, ZER INUXENTE  
GU IZUTU NAHIEAN, ALDAMENEAN  
HONDORATUZ EGUNA DEREPEENTE

BELDURRA SENTITZEAN EGITEN DUGU – UUUUUU!  
PORROTA, HUTSUNE EXISTENTZIALA, LAPURREN BISITA  
ZAHARTZAROAREN BELDUR, BAI, BAKARDADEA  
EZ DUGU GALDU NAHI MEMORIA, ETENGABE BIRAKA DABILEN NORIA.

GURE BELDURRA BETI PRESENTE  
ETA GU IHESI, ZER INUXENTE  
GU IZUTU NAHIEAN, ALDAMENEAN  
HONDORATUZ EGUNA DEREPEENTE